



DOBERAK AURKEZTEN DU:
**IPUIN
FAKTORIA**

2017/09/06



🔍 Idatzi bilaketa hitza(k) **Bilatu**

HERNANI	GOIZUETA	ARANO	EREÑOTZU	ASTIGARRAGA	Hemeroteka
Multimedia	Publizitatea	Bazkide egin	KOMUNITATEA		



Sagardo berria dastatzeko aukera izango dute astigarrarrek, Zelaia sagardotegian.

[albisteak//TXOTX IREKIERA](#)

Kupelatik basora, sagardo berriaren aurreneko tragoa gaur

Aritz Aranburu surfistak irekiko du Astigarragako txotx denboraldia, Zelaia sagardotegian. Aurretik, uzta eta sagardo berriaren ezaugarriak aurkeztuko ditu Jesus Mari Santos alkateak.

ASTIGARRAGA

2016/01/13 00:00 Asteazkena

Zelaia sagardotegiko kupelatik, Aritz Aranburu surfistaren basora egingo du bidea sagardo berriak, gaur aurrenekoz, Astigarragako txotx denboraldiari hasiera emateko. 23garrenez ospatuko dute gaur, Sagardo Berriaren Eguna.



PDF

ASTIGARRAGA

Irailak 6



PDF

HERNANI

Irailak 6

ESKELAK

HERNANI

**Antonio Eguzkiza
Arregi**



Joaquin Aramburu



Eguerdiko 12:00etan izango da aurkezpen ekitaldia. Jesus Mari Santos alkateak emango du uzta, sagar eta sagardo berriaren ezaugarrien berri.

Sagarrondo bat landatu, Sagardoetxeako sagastian

Ondoren, sagarrondo bat landatuko du Aritz Aranburu surfista zarauztarrak, aurtengo gonbidatu bereziak, Sagardoetxeako sagastian. Horrekin, «naturaren dinamikotasuna eta berritzeko ahalmena» azaldu nahi dituzte, «urtetik urtera mahai batean sagardoaren bueltan esertzeko aukera eskaintzen baitigu».

«Gure sagardo berria», Zelaia sagardotegian

Eta ondoren iritsiko da eguneko ekitaldi nagusia. Txotx irekierako protokoloa hasiko dute eguerdiko 13:30etan, Hernaniko Zelaia sagardotegian. Txalapartaren hotsek lagunduta, sagar dantzak eta sagardogileen soka dantzak gerturatuko dute Aranburu kupelera.

13:45ak aldera irekiko du aurreneko kupela Aranburuk berak, «Gure Sagardo Berria» oihu eginda. Berak hartuko du, aurtengo sagardoaren aurreneko tragoa.

Eta segidan, denboraldiko aurreneko sagardotegi menua dastatuko dute, Zelaia sagardotegian bertan.

13:45ak aldera irekiko du aurreneko kupela Aritz Aranburu surfistak, Zelaia sagardotegian.

‘Pintxotx’ lehiaketa herriko tabernetan, gaurtik etzi arte

Arratsaldean jarriko dute martxan, pintxo lehiaketa berezia ere, txotx denboraldi hasiera aitzakia hartuta. Astigarraga eta Hernaniko tabernetan egingo dute Pintxotx, eta gaur doan probatu ahal izango dira pintxoak; bihar eta etzi, berriz, euro batean egongo dira salgai. Gero, aukera izango da pintxoa puntuatzeko, tabernetan egongo diren txartelen bitartez, 1etik 5era. Etzi arte izango da lehiaketa, eta larunbatean emango dute saria, Hernaniko txotx irekiera ekitaldian. Eta beste bi sari ere zozketatuko dituzte bertan, bozkatu duten herritar guztien artean: otordu bana Astigarragako eta

Arruabarrena



Agenda Bateratua

[//Erabiltzaileak](#)



gurean.eus

Hernaniko sagardotegi batean, bi pertsonentzako. Astigarragan, honako tabernek hartuko dute parte lehiaketan: Bukoi, Ekaitz, Estanco, Ibai-Lur, Ikatza, Kalezoku, Kupela, Pastoriza, Robin, Sagartxo, Txiki eta Zipotza. Hernanin, berriz, honakoek: Atxur, Aralar, Deportivo, Garin, Goiz Argi, Irrintzi, Joxe Mari, Kixkal, Oindi, Rufino, Tripontzi, Txilibita, Txoko eta Zumitza. Pintxoak dastatzeko aukera izango da gaur bertan, eta afarirako ere, sagardoaren bidetik joko dute askok. Izan ere, Rezola sagardotegian egingo dituzte afariak, herriko talde kulturalak.

‘Sagardoa bidegile’ dokumentala, bihar

Bihar ere izango da sagardoarekin zita, kasu honetan Kultur Etxean. Sagardoa bidegile dokumentala emango dute, arratsaldeko 18:00etan, eta solasaldia eta sagardo dastaketa izango dira ondoren. Sarrera doan izango da.

ASTIGARRAGAKO TXOTX IREKIERA

GAUR, asteazkena

11:30-12:00, Komunikabideei akreditazioak banatuko zaizkie Sagardoetxean.

12:00, Prentsaurrekoa egingo dute Sagardoetxean. Bertan, 2015eko uztaren ezaugarriak, sagardo berriari buruzko datuak eta sagardogileen munduko gertakari garrantzitsuenak azalduko dituzte.

12:45, Aritz Aranburu gonbidatuak Sagardoetxeako sagastian sagarrondo bat landatuko du.

13:30, Txotx irekierako protokoloa ospatuko da Zelaia sagardotegian. Txapalapartarien deiaz, sagar dantzaz eta sagardogileen soka dantzaz, Aritz Aranburu kupelera gerturatuko da.

13:45, Zelaia sagardotegian lehen kupela irekiko da eta gonbidatuak lehen tragoa dastatuz, Gure sagardo berria oihukatuko du. Une horretan, ofizialki txotx denboraldi berriari emango zaio hasiera. Ondoren, denboraldiko sagardotegiko lehen menua dastatuko da.

18:00-20:30, Pintxotx eskainiko da Astigarraga zein Hernaniko tabernetan. Doan emango dituzte pintxoak gaur.

20:30, Rezola Sagardotegian talde kulturalen afaria egingo da.

Urumeako gida



Gudari okindegia

Gosarietan eskaintza bereziak

Iragarki merkeak

23 urteko magisteritza ikaslea goizetan hurrei laguntzeko prest (prestatu, eskolara lagundu...)

Telefonoa: 695726191

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... (Agustindarren plaza, 4)

Telefonoa: 943332894

+ Ikusi

gur



BIHAR, osteguna


18:00, Sagardoa bidegile dokumentala, Kultur Etxean.
Bukaeran, solasaldia eta sagardo dastaketa izango dira.
Sarrera, doan.

BIHAR ETA ETZI

19:00-20:30, Pintxotx lehiaketa, herriko tabernetan:
Bukoi, Ekaitz, Estanco, Ibai-Lur, Ikatza, Kaizoku, Kupela,
Pastoriza, Robin, Sagartxo, Txiki eta Zipotza. Euro batean
egongo dira pintxoak.



Txiokatu



Inprimitu

IRUZKINAK

Sentitzen dugu, erabiltzen ari zaren nabigatzailea ez da bateragarria bateragarria:

- [Firefox](#)
- [Chrome](#)
- [Internet Explorer 11+](#)
- [Safari](#)



Durang
pozik h

ORAIL
gur




'Etorkiz
etorkiz
eraikit

GUREA



Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin eg



www.



Z

Zure domein

Gaur  20°	Bihar  20°	Etzi  20°
--	--	---

Azken argazkiak



Latsunbeberri-Marielut...



Portuko Jaiak 2017



Ergobiako Jaiak 2017



Goizuetako Fiestak - A...



Goizuetako Fiestak - A...



Goizuetako Fiestak - A...

Azken bideoak



Tolosa ahizpak txapeldun, Zestoako ...




«Urduri egongo naiz; hainbeste ...




Azkeneko bideoak, web orrian



Azkeneko bideoak, web orrian



Azkeneko bideoak, web orrian



Azkeneko bideoak, web orrian

ARGITARATZAILEA	ZEIN GARA	KONTAKTUA	TOKIKOM				
		<p>Larramendi kalea 11 - Hernani 20120 Telefonoa: 943 33 08 99 / 688 660 714 E-maila: kronika@kronika.eus astigarraga@kronika.eus urumea@kronika.eus</p>	 				
LAGUNTZAILEAK							
 Gipuzkoako Foru Aldundia	 EUSKO JAZURIAK/ GOBIERNO VASCO	 Hernani Udala	 Astigarragako Udala	 Ereñotzuko Auzo Udala	 Arango udala	 Goizuetako udala	 DOBERA KRONIKA BAZKIDEAK

Legezko oharra